


Astekaria



elgoi



Santa Ana kalea 5, behea • Tel. 74 06 46 • ELGOIBAR

Argazkiak ORDUBETEAN izango dituzu eta
ALBUM BAT eta 24ko KARRETE BAT erregalatuko dizugu
Opf q rcuc lj cwgt km 1996!



PILAR IKASTETXEA

2tik 16 urtera

Gurekin

hazi eta

hezi

AURREMATRIKULA

ZABALIK

Otsailaren 20ra arte



elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi.

KAZETARIK:

Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martin,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegi, Xabier Ansola, Nekane Aranburu, Pello Arrieta, Ina Garagarza, Amaia Gorostiza, Maite Iriondo, Edu Iriondo, Alberto Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Juan Mari Mendizabal, Milagros Oiarzabal, Benantzio Otegi, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta, Deñe Zabalo, Lucia Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-
1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



kutxa fundazioa
fundación kutxa



Irakurketak

Zenbat buru hainbat aburu” sekzioan parte hartzeko gonbidapenari erantzun modura, Koldo Lizarralde idatzi eta Elgoibarko Udalak argitaratu duen liburua irakurri ondoren izan ditudan inpresio batzuk isladatzea gustatuko litzaidake.

Betidanik pentsatu izan dut Mendaro beste auzo batzuen era berean, Elgoibar sortu eta gero bilakatu eta garatu zela. Badirudi ez zela horrela gertatu: lehenbizi Mendaro sortu omen zen eta lapurketa eta etsaien erasoetatik babesteko harresiz inguraturiko herriska bat eraikitzea erabaki zuten, gaur egungo Elgoibar bilakatu zena, hain zuzen.

Edozein herrik bezala, bilakaera handiena bake garaietan izan zuen Elgoibarrrek. Guda garaiek, herri jabetzaren galera, lurrak batez ere, eta “miseria” ekarri zituzten. Honek ondorio izugarriak izan ditu herri bilakaeran, azpiegitura, komunikabide... orokorrean oso arrazionala ez den “urbanismo” batera eraman baitu gure herria. Zorionez, badirudi azken aldian gauzak hobeto egiten ari garela.

Aipagarria iruditu zait, herritarren lan etengabeak izan duen garrantzia Elgoibarrren finkapen eta sendotzean.

Elgoibarrrek betidanik izan du inguruko herriekin hartueman ugari, gainera, komunikabidegune garrantzitsuak izateak herriari maila onargarri bat eskuratzea

posible egin dio. Hala eta guztiz, inguruko beste herri batzuek Elgoibarrrek izan duen abantailarik gabe eta inguru orografiko txarrago batekin, bilakaera eta hazkunde handiagoa izan dute, Elgoibarri aurrea hartuz.

Hori dela eta, hamaika galdera bururaten zaizkit zergatiak ezagutzeko asmoz: Eibar toki seguruagoa al zen? Eibartarrak argiagoak al ziren? Anbizio handiagoa al zuten? Produktu egokiagoak fabrikatzen al zituzten? Eta abar.


Nahiz eta galdera hauen erantzunik ez jakin, ez dut inolako dudarik herri baten bilakaeraren arrazoi garrantzitsuenetarikoa bat formazio eta hezkuntza kapazitatean oinarritzen dela. Elgoibarrren gaur egun, OHOk eskolez gain, batxilerra irakasten duen institutua, hezkuntza profesionala eta IMH ditugu. Beraz, etorkizuneko biztanleen hezkuntza eta formazio maila era ezin egokiagoan bideratua dagoenez, lanpostu berrien sorreran eta langabeziaren gutxitzean pentsa dezakegu.

Koldo Lizarralde dioen bezala, historia beti ziklikoa da eta iraganean ere gure herriak garai zailak beti gainditu izan dituzte, ezin dezakegu itxaropena galdu.

Azkenik, oraindik liburua irakurri ez duzuenoi, irakurketa benetan atsegina izateaz aparte, komenigarria ere badela esango nizuke.

Milagros Oyarzabal Osoro

*Eusko Jurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





KEXAK

- Emakumezko batek deitu digu Matadero zaharraren ondoko aparkalekutik gauez pasatzeak beldurra ematen duela esateko. Batere argirik ez dagoenez, Udalarari farola batzuk ipintzeko eskaria luzatu nahi dio.

- Honako hau kexa baino gehiago aholkua da. Irakurle batek deitu digu Kultur Etxeko leihoak barniz beharrean somatzen dituela esateko. Guztiz izorratu aurretik barniz piska bat ematea komeni dela esan digu.



TXALOAK

- Kexatu zen pertsona berak deitu digu oraingoan Correos txalotzeko. Lehen CORREOS y TELEGRAFOS ipintzen zuen tokian, orain POSTA eta TELEGRAFOAK ere ipintzen du eta hori txalotzekoa dela esan digu.

- Emakume batek deitu digu Herri Eskola txalotzeko. Bere esanetan otsailaren 10ean antolatu zen 'Ateak zabalik' ekimena benetan polita eta egokia izan zen.

ESKUTITZAK

Zer gertatzen da San Frantzisko kalean?

San Frantzisko kalea (eta batez ere, King Kong-etik Madalara) Elgoibarko jai giro eta gazte giroaren lekuko da. Bertako bizilagun izanik, egoeraren berri ematen saiatuko naiz. 300 metroko espazioan 12 taberna ditugu, eta horietatik lau 21-25 etxebizitzaren artean. Ez al da taberna gehiegi? Badirudi ezetz, eta denbora gutxi barru beste taberna bat izango dugu. Honen berri izan ondoren, hainbat galdera egiten dizkiot nire buruari: tabernen arteko mugei buruzko araudia ezartzeko, zeren zain dago Udala? Larunbategiaren gazte giroan alkoholarekin dagoen arazoa ikusita, logikoa al da gazte gehien mugitzen den kalean beste taberna bat irekitzeko baimena ematea?

Baina arazoa ez da hor bukatzen, tabernaz inguraturik egoteaz gain, tabako, edari eta txutxeriak saltzen dituzten makinak ere jarri dizkigute. Orduetarik ez duten makinak dira eta sarritan, bai kanbiorik ematen ez dutelako, bai eskatutako txutxeriak barruan geratzen direlako, inguruko bizilagunok jasanezinak diren zaratak entzun behar izaten ditugu: makinari jotako ostikoak, kolpeak, jendearen iskanbila e.a. Eta zarata horiek gaueko edozein ordutan. Nork du horren erantzunkizuna? Makinaren jabeak ala horretarako baimena eman dionak...

Kexa hau inguruan bizi direnen ahotan ere sarritan entzun izan dut. Beraz, bukatzeko galdera bat egin nahi

nuke: kale honetako bizilagunok ez al ditugu, besteek bezala, udal zergak ordaintzen?

Mesedez, gure herriko kaleetan horrelako makinarik ez!!!

J.G.

San Frantzisko kaleko bizilagun bat

Fernando Mugika

Pasa diren egun horietako batean, Valentin Solagaistua esaten zuen Franquismoaren garaian, bera gartzelan zegoenean, epaimahai frankuisten aurrean defendatzeko eskatu ziola Fernando Múgikari eta ordaintzeko dirurik ez zeukala aipatu zionean, honek, gartzelatik irteten zenean "txikito" bat hartuko zutela erantzun ziola. Dirudenez, Fernando erahil zutenak Franco ez zuten ezagutu, umeak ziren, iragapen edo trantsizio demokratikoan hazitakoak dira, beraiek besteei ukatzen dioten bizitzeko eskubidea bermatu edo aseguratzen duen sistema honetan hazitakoak dira.

Halere, erahiltzen jarraituko dute. Ez dira konturatuko Fernando erahil arren, langabeziarekin jarraitzen dugula; herri kontzientzia izateko beharrezkoa zaigun euskalduntze prozesuak bere denbora behar duela, belaunaldi edo generazio batzuk pasatuko direla burutu ordurako. Fernando erahiltzeagatik Nafarroa eta Araban abertzaleak ez direla ugarituko. Ez dira konturatuko herri honek dituen arazoak bideratuko dituen protagonista EUSKAL GIZARTEAK izan behar duela, eurak desegiten ari diren EUSKAL GIZARTEA. Ez dago beste biderik.

Juanjo Baztarrrika

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





AZKUE

Aste honetako erretratua **Kontxa Azkuek** lagatakoa da eta 1962ko maiatzaren 31n aterakoa. Informazio gehiegirik ez badaukagu ere, Kontxak esan digunez **Etxegiñari** egin zioten omenaldian ateratako erre-

tratua da goikoa. Kontxaren ustetan, Udala eta Elgoibarko Izarra izan ziren omenaldia prestatu zutenak, baina ezin du informazio hau ziurtatu. Izan ere Etxegiñak izan ditu bizpahiru omenaldi.

Plazara iristen ari diren txistulariak honako hauek dira: Ezkerretik hasita, **Felix Ansola**, **Patxiko Etxeberria** (†), **Julian Iriondo** eta **Silbino Gabilondo** (†).

**JATETXEA
ETA
TABERNA**
P. Muguruza 8. ☎ 74 08 21

magu's
ILEAPAINDEGIA
EDERGINTZA
San Roke 6 behea tel. 74 34 91

**EGONDO, S.L.**
METALEZKO ERAIKUNTZAK
KALDERERIA LANAK OROKORREAN
Olasope kalea 3. blokea ☎ 74 34 08-04 FAX 74 34 08

Altzari zaharren metamorfosisia



Birziklaia moda bat baino zerbait gehiago da. Izan ere, aukera ematen du zakarrontzitik jasotako tresna zaharrak eta ustez erabilpenik gabekoak, garbitu, txukundu, eraldatu eta zerbait berria izango bailiran berriz ere etxean sartzeko. Urrian

hasita, 13 ikaslez osatutako talde bat jo eta ke ari da lanean, ikastaro batean. Lanbide Eskolak antolatuta, eta Jaurlaritzako lan sailak subentzionatuta, altzariak birziklatzen ari dira. Dagoeneko hainbat ohe, mahai, aulki eta bestelakoak eraberritu dituzte eta datorren hilaren 1etik 7ra, Kultur Etxean horiek guztiekin erakusketa egingo dute.



Hamairu ikaslez osatutako taldea oso gustura dago ikastaroarekin.

Lanbide Eskolan sortu zen ideia. Hezkuntza ez-arautuaren barnean hainbat ikastaro antolatzen dituzte, bai langileei bai eta langabetuei zuzenduak. Aspaldian birziklatzeak horrenbesteko oihartzuna duenez, altzariekin ere beste horrenbeste egitea okurritu zitzaien. Horrela bada, Mariasun Larrañagak esan zigunez, “Eusko Jaurlaritzako Lan Sailera jo genuen, proiektua aurkeztu genien eta oniritzia eman ziguten. Dirulaguntza, beraz, baguenen”. Hurrengo pausoa lokala topatzea izan zen, Gillermo Garate alkatearekin izan ziren eta Muguruza-ko eskola zaharrean hiru lokal utzi zizkieten.

IKASLEEN AHOTAN

“Beti gustatu izan zaizkit eskulanak, aukera paregabea iruditu zitzaidan”

“Hasieran abentura bat da. Denborarekin ausartago egiten zara”

“Harrigarria da altzari itsusi baten bilakaera ikustea. Sinistezina”

“Zakarrontzian arakatzan ibiltzea berria izan da. Jende asko ibiltzen da, askotan korrika ibili behar zara beste inor baino lehen iristeko”

Miren Monasterio eibartarra da irakaslea. Urrian hasita eta datorren apirilera arte, egunero lau orduko ikastaroa da. Hasiera batean jende askok eman zuen izena baina, denek tokirik ez eta azterketa bat egin zen, “batetik, bakoitzak zuen gaitasuna neurtzeko ariketak eta, bestetik, elkarriketa pertsonala”. 15 ikaslez osatu zen taldea, 13 neska eta bi mutil, gehiengoak elgoibartarrak nahiz eta eibartar bat edo beste ere badagoen. Ikastaroak aurrera egin ahala bi ikaslek utzi beharra izan dute arrazoi ezberdinengatik.

Enpresa sortzeko asmoa

Urratsak poliki-poliki hasi ziren baina denbo-

rak aurrera egin ahala, ikastarotik beste zerbait ere atera zitekeela ikusi zen, enpresa bat hain zuzen. Honela bada, DEBEGESArekin jarri zen harremanetan eskola eta proiektuaren berri eman zion. Gauza bera egin zen *Bultz-lan* izeneko asesoriarekin. Interes handia azaldu zuten eta gaur egun *Bultz-lan* proiektuaren bideragarritasuna aztertzen ari da. Pedro Marinagas da *Bultz-lan*-eko ordezkaria eta berarekin izaten dituzte bilerak ikasleek eta eskolako ordezkariak. Ikasleak taldetan banatu dira eta bakoitzak zeregin bat du: produkzioa, aprobisionamentua, administrazioa eta merkatua. Hitz batean, non eta nola saldu. Ikasleak, arratsaldez ikastaroarekin jarraitu eta goizez bakoitzari egokitu zaion lanean ari-

IKASLEEN AHOTAN

“Engantxatu egiten zaitu. Etxeko altzari guztiak inongo nituzke aldaketak”

“Jende askok galdetu dit nola landu daitekeen pitza duen altzari bat”

“Bazkalostean ikastarora etortzea, jai batera joatea bezalako da”

“Anekdotak? Asko. Behin, zakarrontzian hartutako altzariak furgonetatik erori zitzaizkigun”

“Erakusketa garrantzitsua da guretzat, jendeak nola erreazionatzen duen ikustea. Ilusioa daukagu”.



Aulkiak hartu eta itxura erabat berria ematen diote.

tzen dira.
Erakusketa

Martxoaren 1ean hasita erakusketa bat egingo dute Kultur Etxean birziklatu dituzten altzariarekin. Helburua, jendeak altzari hauen aurrean duen jarrera ikustea da eta horretarako inkesta batzuk banatuko dira hurreratzen direnek bete ditzaten. Besteak beste, zein jende motari gusta-

tzen zaion jakin nahi dute, ea horrelakoak erosteko prest egongo liratekeen, zein eratako altzariak nahiago dituzten...

Erakusketa enpresaren bideragarritasuna neurtzeko era bat gehiago da. Azken finean, aurrera egin baino lehen, merkatuaren gustuak zeintzuk diren ere jakin beharra dago. Ilusiorik behintzat ez da falta.

MIREN MONASTERIO: “Zakarrontzietako gauzek magia dute”

- Zein da lan-dinamika?

- Lehen lana ondo garbitzea da, gero altzaria konpondu behar da, lijatu, basea eman eta gainera pintatu edo tintatu. Bakoitzak aukeratu ditu koloreak, marrazkiak...

- Margo bereziak erabiltzen al dituzue?

- Ur-margoak erabiltzen ari gara, batez ere. Oso pintura onak ditugu, atera berri diren azkenak. Altzariaren arabera gainera barniza ematen dugu.

- Egurrekin bakarrik ez duzue egiten lan, ez?

- Ez, pinua, okumena, plastikoa, metala eta antzekoak ere birziklatzen ditugu. Eta, margotzeaz gain, zerbait tapizatzen ere hasi gara, tela ganean margotzen dugu... Denetik.

- Nondik ateratzen dituzue altzariak?

- Batzuk hustu behar dituzten etxeetatik eta gehienak zakarrontzietatik. Taldeetan banatuta, Elgoibar, Eibar, Soralue eta Bergaran ibiltzen



gera zakarrontzietan begiratu eta altzariak jasotzen.

- Filosofia, beraz, zein da?

- Edozer birziklatzea. Zakarrontzietatik gauzak berreskuratzea eta ezertarako balio ez zuen zerbait gauza zoragarri bihurtzea. Zakarrontzietako gauzek magia dute, enkantu berezia.


- Edonork egin al dezake?

- Printzipioz bai, edonork ikas dezake. Egia da batzuek esku hobeak dutela eta koloreak hobeto konbinatzen dakitela baina edonork ikas dezake eta praktikatzen asko ikasten da.

- Eta inspiraziorik ez duenak?

- Gauza berriak sortzeko gai ez denak beste toki batzuetatik har ditzake adibideak eta kopiatu.

Superstiziosoa al zara?



MARTIN GARAGARZA

37 urte, dendaria

Ez dut sinesten horrelako gauzetan. Kolore horiak zorte txarra ematen duela, astearta eta 13 egun txarra dela... niretzat beste egun bat gehiago da.



M. CARMEN LEON

30 urte, ikaslea


Ez. Eskilara baten azpitik ez naiz pasatzen baina ez siniskeriengatik, arriskuegatik baizik. Zortea ez dago gauza horietan, pertsona batzuek zorte ona dute eta beste batzuek txarra.



CELSA FERNANDEZ

55 urte, etxekoandrea

Ez, astearta eta 13 bezalako egunek barregura ematen didate. Ez diet kasurik egiten superstizioei, tontakeriak iruditzen zaizkit.



LUIS CLERIGUE

65 urte, jubilatua


Astearta eta 13, San Valentin... denak dira antzerakoak. Ez dut horrelakoetan sinesten, eta ez diet kasurik egiten. Orokorrean tontakeriak iruditzen zaizkit.



VIRGINIA MARTIN

46 urte, etxekoandrea

Apur bat bai. Esaterako, aurtentz biestoa da eta horrek ematen dit zer pentsaturik, astearta eta 13, katu beltza... Halere, ez dut pentsatzen ezer gertatuko zaidanik. Anekdotak hutsa da.



VICENTE CALOMARDE

65 urte, jubilatua

Nik sekula es dut igarri astearta eta 13 tokatu izan diren egunak txarrak izan direnik. Superstizioei ez diet kasurik egiten, ez onei ez eta txarrei ere, tontakeriak dira.

okindegia eta gozotegia

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35
ELGOIBAR

Maria Urizar

ileapaindegia
eta **ORAIN SOLARIUMa**

Errosario 9-1ezk. ☎ 74 44 89 ELGOIBAR



PP alderdiak Elgoibarko Udaletxean duen zinegotzi bakarra, Juan Carlos Abian (argazkian) Europar Legebiltzarrean izan zen Elgoibarko arazoei buruz hitz egiten. Ana Iribar-i, Gregorio Ordoñez zenaren alargunari PP europarrak eman behar zion saria zela-eta, Euskal Herriko PPko zinegotziak Bruselara joan ziren ekitaldian parte hartu eta parlamentuan nork bere arazoak azaltzeko asmoz. Juan Carlos Abianek Elgoibarrek bizi duen egoera sozioekonomikoaren berri eman zuen parlamentuan eta gure herriarentzat diru laguntzak emateko ahaleginak egin ditzaten eskatu zien parlamentariei.



Maria Pérez eta Adolfo Martin elgoibartarrak, 41 urtekoak biak, joan den larunbatean, hilak 10, ezkondu ziren Udaletxeko epaitegian beren seme-alabak lekuko zirelarik. Seme-alabek, Jonathanek eta Naiarak, sorpresa eman nahi izan zieten gurasoei ezkontza egunean, eta ez nolanhikoa gainera. Jonathanek eta Naiarak abestu egin zuten ezkontzan Ikastolako 8. mailako lagunek flautarekin eta toberarekin lagunduta. BARRENeN agertzearena ere seme-alaben ideia izan da, jakina, gurasoen ezkontza ez baita egunero gertatzen. Ezkontza eta gero Txurrukan bapo bazkaldu eta egun alaia igaro zuten. Orain, ezkonberri guztiak bezala, ezkon-bidaian daude Maria eta Adolfo, baina hori bai, "seme-alabarik gabe!".

■ Ibilgailuen azterketa zerbitzua San Roken

Elgoibarko Kontsumitzaileen Informazioarako Udal Bulegoak, CADEM-Eusko Jaurlaritzarekin bat eginda, ibilgailuaren azterketarako zerbitzua martxan jarri du 1.000 pta.ren truke. Ibilgailuak puntuan jartzeko zilindroen konpresioa, bateria, amortiguazioa, bolantearen mugikortasuna, gurpilak, argiak, eskapea, gasolina eta karburadoreen bonba, pizte sistema etab. begiratu-ko dira. Ordutegia goizeko 11etatik 2etara eta arratsalde 4etatik 7etara bitartekoa da. Errebisio lekuan bertan, eguna eta ordua aldeztu aurretik eska daitezke, larunbat eta igandeetan izan ezik. Informazioarako Kontsumitzaileen Udal Bulegora zuzendu (Merkatu Plaza. Tel: 74 30 88. Goizeko 9etatik 1era).

■ Fondoko eskia

Datorren asteburuan, hilak 24 eta 25, Belagoara fondoko eski irteera antolatuta du Morkaiko Mendizale Elkarteak. Izena emateko Morkaikoren lokalera zuzendu lehen bait lehen. Bestetik, federatu karnetak jasotzeko dituztenak egoitza pasatu daitezke asteazken eta ostiraletan iluntzeko 8etatik 9etara bitartean.

■ PNVren mitina

Larunbatean, hilak 17, Donostian izango den mitinera joateko autobusa aterako da Eibartik arratsaldeko 4,30etan. Mitinera joan nahi duenak izena emateko dei dezake Batzokiko 74 27 44 zenbakira. Autobusa Sigmako zubian gertuko da arratsaldeko 4,45 aldera.

■ Santa Agedako antolatzaileen eskerrak

Santa Agedako koruen antolatzaileek eskerrak luzatu nahi dizkie hilaren 3an diruz lagundu zuten elgoibartar guztiei. Jasotako dirutza, 150.000 pta., Caritas elkarteari emango zaio. Era berean eskerrik beroenak eman nahi dizkiete Donostian bizi diren elgoibartarrei 25.000 pta.ko diru laguntzagatik.

Sagardotegiien Gida

*Sagardoa edan
eta bapo jateko gogoa duzu
baina ez dakizu nora jo?
Hona hemen dozena bat aukera!*

REZOLA (Astigarraga)

- **NAGUSIA:** J. Ramon Rezola Isasa.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik apirilera arte.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 100 lagun, eserita.

Ipintza baserria (Astigarraga)
☎ 55 66 37



ZABALA (Aduna)

- **NAGUSIA:** Ramon Zabala Mendizabal.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik apiril bukaerara arte.
- **JATEKOA:** sagardotegikoa zein norberak eramandakoa.
- **LEKUA:** 120 lagun.


Garagarza baserria (Aduna)
☎ 69 07 74



ANOTA (Azpeitia)

- **NAGUSIA:** Luis Mari Beloki.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urte osoa.
- **JATEKOA:** bakailo eta zezina tortila, txuleta, intxaurrek etab.
- **LEKUA:** 250 lagun.

Elosiaga auzoa (Azpeitia)
☎ 81 20 92



BIDEBITARTE (Oiartzun)

- **NAGUSIA:** M. Jesus Retegi.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik maiatzera.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 80 lagun eserita.
Bidebitarte baserria, Arragua auzoa (Peaje ondoan) (Oiartzun)
☎ 49 21 01



ISASTEGI (Tolosa)

- **NAGUSIA:** Migel Mari Lasa Arostegi.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarrilaren 9tik apirilaren 30era.
- **JATEKOA:** sagardotegikoa nahiz norberak eramandakoa.
- **LEKUA:** 200 lagun.
Aidaba-Txiki auzoa, 15 (Tolosa)
☎ 65 29 64



TXERTAKADI (Zaldibia)

- **NAGUSIA:** Martin Irazustabarrena.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urte osoan txotx-etik.
- **JATEKOA:** aurrez enkargaturik norberak nahi duena.
- **LEKUA:** 160 lagun.
Urtesabel auzoa (Zaldibia)
☎ 16 13 59



ETXE-ZURI (Olaberri)

- **NAGUSIA:** Felix Garmendia.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urte guztian irekita.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 110 lagun.
Etxe Zuri baserria (Olaberri)
☎ 88 20 49



ELUTXETA (Urnieta)

- **NAGUSIA:** Frantzisko Urruzola.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** txotx-etik eta urtean zehar jatetxea.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 200 lagun, zutik nahiz eserita.
Elutxeta baserria (Urnieta)
☎ 55 69 81




KORTA (Gabria)

- **NAGUSIA:** Inazio Korta.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik apirilera.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua eta mariskeria. Gazteentzako menu bereziak (2.200 pta.).
- **LEKUA:** 110 lagun.
Korta sagardotegia (Gabria)
☎ 88 71 86




IZETA (Aia)

- **NAGUSIA:** Manuel Iruretagoiena.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarrilaren 19tik hasita, urte osoan.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 200 lagun.
Izeta baserria (Urdaneta bidea) Aia (Zarautz)
☎ 13 16 93




LARREGAIN (Hernani)

- **NAGUSIA:** Ixabel Santa Kruz.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik apiril bukaerara arte.
- **JATEKOA:** Sagardotegikoa zein norberak eramandakoa.
- **LEKUA:** 150 zutik nahiz eserita.
Larregain etxea, Ereñozu (Hernani)
☎ 55 58 46



URDAIRA (Usurbil)

- **NAGUSIA:** Patxi Azkonobieta Etxeberria.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarrilaren 13tik apiril bukaerara arte.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 100 lagun.
Aginaga auzoa (Usurbil)
☎ 37 26 91



Inaxio Arizmendiarieta:

"Ilusua eitzen dau santa eskian jendian poza ikustiak"

Inaxio Arizmendiarieta ez da bertsolaria baina berak idatziak dira azpian irakur daitezkeenak. Izan ere, 50 urte bete ditu aurten Inaxiok Santa Ageda bezperan koruetan aritu izan denetik eta omenaldia eskaini diote.

Berak oroigarria jaso zuen eta Kepa Urain koplariak bertsoak eskaini zizkion. Inaxiok ere eskertu nahi izan zituen bai antolatzaileak bai Baltasar elkarteak. Esan digunez, "bertso hauek nere testamentua dira".

- **Hasieratik zaude zu Santa Agedako koruetan.**

- Bai. Guk estudiantina bat osatu genduan eta karnabaletan urtetzen ginan kantuan pobrientzat dirua batzeko, Bereziartuak ipinitxako musikia eta Isaak Azpiazun letria eukitzen zaben bi kantu abesten genduzen, "Habanera" eta "Mazurka". Gero, Etxegiña zanak Santa Agedako koruak antolatu zitxun eta guri esan zigun hantxe has-teko. Holaxe, 50 urte ein ditzudaz.

- **Etenik gabe?**


- Aurten gaixo egon naiz eta ezin izan det baina oin arte beti.

- **Asko aldatuko zen ordu-tik, ez?**

- Batez ere Elgoibar. Orduan askoz txixixaua zan. Oin, San Pedroko etxiak, Sigma, Urasandi... Asko hazi da herrixa eta autobusian ibiltzen gera auzo batetik bestera. Gainera, lehen beti urtetzen ginan Santa Ageda bezperan, asteguna izanda ere. Arratsaldian urtetzen ginan, 5ak aldera eta iluntzeko 9ak arte. Lanian galdutako orduak ez zizkiguten pagatzen. Gero, zapatura pasau zan, goizera, lanik ez galtzeko.

- **Emakumerik ere ez zegoen hasieran.**

- Ez. Baina politxaua



AZKUE

Inaxiok bere omenaldi egunerako egin zituen bertsoak:

Santa Agedaren izenean urte askotan gera agertu berrogeita hamar urte igaro ditut haren bertsoak abestuz inorentzat eskatu eta batzen gu ezin gera aspertu beti behar degu bide honetan gogoz eta sendo jarraitu

Hainbat familiri diegu bai askotan lagundu hainbat negar malko nahi izan degu lehortu eta gure bihotzeko errukia diegu agertu ez zaitezte bada lagunok besteei on egiten aspertu

Neronek aurten ezin izan det zuekin agertu gaixotu egin naiz baina ez naiz aspertu hurrengo urtean nahi nuke zuekin batera agertu Jaungoikoaren laguntzaz batera gaitezen elkartu

Gure ohitura behar degula zaindu eta indartu Santa Ageda dezagun gogoratu eta goratu Ama Birjinari Salbea bihotzez eta fedez abestu eta Jaungoikoaren zeruan gaitezen denok agertu.

da. Jardin osorik ez dao lorarik gabe eta neskek alaitxasuna ipintzen dabe.

- **Berezia da Santa Eskea?**

- Neretzat bai. Anaixa gaixorik egon zanian bere alde dirua jaso zan eta oin nik dihardut, aspertu be, beste familixerik laguntzeko asmuan.

- **Ederrena Salbea.**

- Bai, gauza haundixa izaten da. Errosaixo kaleko Ama Birjinari bihotzakin kantatzen diogu salbia hil diazenen alde.

- **Eskuzabalak al gara elgoibartarrak?**

- Oin ez dia garairik onenak baina... Hori bai, eskertzekua da jendia kalia zela geratzen dan gu entzuten. Poztu eitzen dau eta hori ona da. Ohitura zahar- reri eutsi ein bihar jakue.

- **Eta bazkaria?**

- Oso ondo, euskal giro jatorra sortzen da, bertsoak eta kantuak...

- **Anekdotarik ere izango duzu.**

- Akordatzen naiz behin batek hamaika kazokada baba jan zitxula. Hurrengo egunian, gainera, despedidia zakan. Ezin izan zaban ezer jan, ez zaban batere ondo pasau! Eta azkena aurten. Plaka bat ein zien eta zilarrezko eztaiak idatzi bertan urrezkuak biharrian. Konpontzera eraman debe.

Zcj ct tcm BERRI

3. ADINARI ZUZENDUTAKO 20. GEHIGARRIA



Ihaurerietan sartuak gaude bete-betean. Aurten ere, iaz bezala, Jubilatuen Etxean antolatu dituzte ekintza bereziak. Horien artean dantzaldia. Igandean izango da lehena, Gelatxoren eskutik eta arratsaldeko 6etan hasita. Domekan joaterik ez dutenek edo dantzazaleak izan eta errepikatzea nahi

dutenek, asteartean izango dute aukera. Egun horretan, orduan ere 6etan, Gelatxok pieza ezberdinak joko ditu bata bestearen atzetik, bertaraten diren guztiak dantzan jarritz. Asteartean, gainera, mozorro lehiaketa izango da. Mozorrorik polit eta orijinalenak eskuratuko du saria. Animo, beraz!

BOUTIQUE DEL PAN

Enpanadak	Enbutidoak
Baserriko ogia	Bolleria

San Bartolome, 6 / B. Ecenarro, 1 ☎ 74 33 92

Cordon, Vilarchao, c.b.

DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behe. Tel.74 28 74 - 74 05 70

FAUSTINA ZUBIAURRE

"Odeaira etortzen zian artistak gurian jaten zebe"

Metalkua baserrian jaio zen Faustina Zubiaurre orain dela 72 urte. Makina bat urtetan ibili izan zen esnea partitzen kalean, 28 urte zituela Iñaki Konde zenarekin ezkondu eta kalera jatsi zen arte. Sukaldari aparta izan zen Faustina. Berak egiten zituen barazki menestak fama handia zuten bai eta sufleak ere. 1955ean Gorbea jatetxea ireki zuten eta han anekdota mordo bat bizi izan zituen, batez ere parean zegoen Odeaira etortzen ziren antzetzaldeetako kideekin.

- Zumaian ikasi zenuen sukaldari, ez?

- Bai, Hotel Zumaia-n. Erreal bat edo bi pagatu bihar izan nitxun. Gero, amaitxu nabanian, kasualidadez sukaldarixa jun ein zan eta neri esan zien haren partez geratzeko Hiru hilabete eon nitzan eta 4.000 pta. pagau zien. Diru morduakin bueltau nitzan baserrira.

- Eta, zertan gastatu zenuen?

- Arreorako izarak erosi nitxuan, ezkontzeko.

- Ezkondu, bi seme izan eta jatetxea ireki zenuten.

- Bai, 1955 urtian. Jendiak atzera botatzen zian tokixa apartau samar geratzen zala esanez baina nik aurrera ein naban eta holaxe zabaldu genduan Gorbea.

- Zergatik izen hori?



- Lehengusu bat Gorbea mendixan hil jakun eta haren omenez.

- Odeoia zeneukaten parean.

- Bai. Ene! Zenbat anekdota! Artistak etortzen zian Odeoian akatuzera, orduan Eibarren ez zauan teatrorik eta. Akordatzen naiz zela permisua eskatzen gendun aiuntamintuan 12xak arte zabalik eukitzeko. Behin baino gehixotan, mutil gaztiak komunian ezkutauta harapatzen genitxun, artistekin egozia nahi zebela eta...

- Zure menestak fama omen zaukan inguru guztian.

- Bai. Udaberrixan eitxen naban, orduan dao berdurarik onena eta ugarixena eta. Soziedadietarako eskatzen zien, Eibarrera ere... Azkenian, hainbeste eskatzen zien kantzau ere ein nitzala eitxiaz...

- Eta postrerik Faustina?

- Suflea zan nere espezialidadia. Behin, Athletik-eko jokalarixa zan Artetxe egon zan gurian bazkaltzen eta hari preparau nion sufli. Hainbeste gustau jakon, gizon bat bialdu zabala Bilbotik errezetia hartzeko.

- Zuenean zer jaten da gustura?



Lan asko ematen zaban jatetxiak baina San Sebastian bezperan beti juten ginan Donostiara afaltzera



- Ondiokan ere gustoren oilagorak, mendiko txori txixixak jaten dabe etxian. Neri gehixen gehixen bakilaua gustau izan jata eta legatzan hegalak saltsan.

-Lan asko jatetxean?

- Bai Nik bost neska eukitzen nitxun eta txandaka hartzen genduan jai, bakoitzak astian arratsalde bat. Hori bai, San Sebastian egunian beti juten ginan gabian, afaltzera.

- Gorbean ematen zenuten bizi-tza, beraz.

- Bai. Etxia bigarren pisuan zauan eta han lo bakarrik eitxen gendun, beste guztia tabernan.

- Penarekin utziko zenuten.

- Bai, morriñakin.

- Gizon asko konkistatu izan al dituzu janariarekin?

- Ezin esan nik hori. Egixa da jendia etortzen jatala jatera, tabernia beteta eukitzia zan nere konkistarik haundixena. Baina bai, nik usten dot ondo kozinatzen daban andriak errez konkistauko dabala gizona. Oin. modernuak esaten dabe ohian konkistatzen dala baina nik ez dot usten hola dala.

- Zerbaiten falta izan al duzu bizi-tzan?

- Alabatxo bat. Bi seme euki nitxun eta oso gustura nao baina neskatxo bat nahi naban nik.

Nola mozorrotzeko ilusioa duzu?

Haurrak, gazteak bai eta hain gazte ez diren asko ere bihar, larunbata, eta datorren asteartean, etxeko edozein arropa zaharrek, norberak jositako jantziren bat edo lagunen batek utzitako mozorroa jantzita, gustura asko ibiliko dira. Ihauteriak dira eta egun hauetan dena da libre.

Gizonezkoek peluka ile-hori luze bat jantzita atera daitezke eta nahi duten emakumezkoek lizentzia dute bibote beltza margotzeko. Batek edo bestek horrelako gauzetarako adina pasa zaiola esan digun arren, ziur gaude aukera izanez gero, guztiak animatuko zirela.



Pakita Etxeberria

80 urte

Ez naiz sekula disfrazatu, gainera bildurtixa naiz. Gabian urtetzen banaiz ere, jende guztia disfrazauta ikustiak bildurra ematen dia.

Zezer eitxekotan nik ondo eingo neuke, ez edozein trapu zahar hartuta, aintzinako erropa dotoriekin jantziko nintzake.



Manuel Criado

69 urte

Ni beti nago mozorrotua, urteko egun guztietan! Gizon itsusiz mozorrotuta! Gaztetan disfrazatzen nintzen, neska gaztez. Orain,

jendea mozorrotuta ikustea gustatzen zait baina ni zaharra naiz horrelakoetarako.

Maria Rementeria

76 urte


Bizitza guztian ez naiz jantzi eta oin ere ez nintzake jantziko. Disfrazatzekotan, Dama Antigua edo jantziko nintzake, politxa iruditzen jata, erropak politxak dia eta norbera ere dotore ikusten da.



Antonio

67 urte

Igaro zait garaia niri hori. Gaztetan bai, etxeko lauzen nintzen. Orain, ordea, ez dut sekula mozorro-tze izan.



Agapito López

76 urte

Ni bezalako aitona zahar bat nola mozorrotuko da? Sekula ez naiz disfrazatu baina egitekotan, inork ez ezagutzeko moduan egingo nuke, maskara batekin

edo. Eta aukeran, emakume gazte jantziko nintzake.



Ibiltzearen onurak

Pertsona nagusien etsairik handienetarikoa ez mugitzea da. Horregatik, onuragarria da ibiltzea, bai pasiara bat ematea bai eta ibilaldiak egitea ere.

Milaka urtetan zehar, gizakiak ezagutzen zuen garraio bakarra bere gorputza zen. Ehizatu ere ibiltzen edo korrika egiten zuten. Gudariak herrialde osoak oinez zeharkatzen zituzten. Bilakaera industrialaren ondorioz makinak sortu ziren, kotxea asmatu zen eta gizakia edonora joateko autoa erabiltzen hasi zen eta pisuak igotzeko igogailua.

Ibiltzeak bizitza sedentarioarekin apurtzen du, ez du gasturik suposatzen eta besteak beste, oxigenazioa hobetzen du, artikulazioak eta giharreak gazte mantentzen ditu, bihotza tonifikatzen du, lo hobeto egiteko prestatzen zaitu eta abar.

Hirugarren adinekoentzat bereziki ona da ibiltzea, jatea eta edatea bezain beharrezkoa. Adineko pertsonentzat ariketa fisiko egokiena da. Kaloriak erretzen dira, loditzea galaraziz. Era berean, idorreriaren aurka ezin hobea da eta gibela, pankreasa eta intestinoan ere eragiten du. Diabetikoek ere, insulinoterapia eta elikadurarekin batera, ibiltzea dute sendagarririk onena.

Horrez gain, fisikoki ongi sentiarazteaz gain, psikikoki ere eragin oso ona du. Naturarekin kontaktuan, paisaia ederrak, errekak... Horiek guztiak ikusteak eta bizitzeak sentazio atsegina sortzen du. Sistema nerbioa lasaitzen



du, inteligentzia pizten du eta ideiak sorrarazten.

Hona hemen zenbait aholku:

- Ibiltzen hasi aurretik, medikuari galdetu.

- Pultsazioek gehienez minutuko 120 behar dute izan. Burukomin, zorabio edo bestelako sintomarik igarri bezain pronto, gelditu eta medikuari galdetzea komeni da.

- Hobe da lagun talde batekin ibiltzea. Errazago ibiltzeaz gain, berbetan aritzea eta lagunak egitea ezin hobea da.

- Hobe lurra asfalto baino eta ahal den neurrian mendi inguruan, naturarekin kontaktu zuzenean.

- Ordu erdi baino gehiagoko irteerak izatea komeni da eta erritmo bizia mantenduz.

- Arropa arina eta garaian garaikoa, onena kirola egitekoa da. Oso garrantzitsua da oinetakoak zaintzea, punta biribila dutenak hobetsiz. Takoi handiegia ez da komeni eta suela narruzkoa edo gomazkoa, marrazkia ondo markatua izanik, ahalik eta hobekien eransteke lurrari. Oinak egunero garbitu eta ondo lehortu behar dira ondoren masaia txiki bat eginez.



JUANITA URAIN

Txipiroiak tinta beltzean

OSAGAIK:

- Txipiroiak,
- Tinta
- Tomatea
- Irina, olio, kipula eta gatz.

PRESTAKETA:

Ontzi batian olixua ipini eta ondo txikitutako kipulia bota bertara. Biguntzen danian kipulia etara eta txipiroiak (ondo garbitxuta) irinetan pasauta bota. Gorritxu arte ein daitxezela txipiroiak. Bitxartian, kipulia pasau eitzen da eta gero, tomatiakin eta tintiakin batera txipiroien gainera bota bihar da. Hogei minutu inguru laga bihar da eitzen listo egoteko.

Jesus Mari Sanz

Zur eta Lur altzari dendakoa



- **Zerk uzten zaitu zur ta lur?**
▶ Politikoak eta, esaten ditxuen gizurrak.
- **Zein garraio erabiliko znuke lurrari bira emateko?**
▶ Oinak, ibiltzen joango nintzake.
- **Hankak lurraren gainean ibiltzen al zara?** ▶ Normalean bai baina batzutan ametsetan be ibiltzen naiz. Bixetatik bihar da.
- **Zerez estaliko zenuke mundua?** ▶ Justiziaz.
- **Zein egoeraren aurrean altxatuko zenuke horma bat?**
▶ Gauzei aurre egiten diuet.
- **Gizarteari termometroa jarriko bagenio, zer markatuko luke?**
▶ Temperatura normala, okerrago egon da eta hobeto ere bai.
- **Bizitza alfonbra bat balitz, zer nahi zenuke bertatik jaustea astintzean?** ▶ Hipokresixia.
- **Bizitza zinea balitz, zein unetan geratuko zenuke pelikula?**
▶ Nire seme-alabak jaio ziranian.
- **Eta zein sekuentzian parte hartu nahi zenuke berriz?**
▶ Edozein momentutan. Danetik egon da nere bizitzan eta dana asumitxu itxen dot.
- **Nolakoa da zure etxetik ikusten den paisaia?**
▶ Ardixak eta mendixak... Ez naiz kalia bizi.
- **Zer tatuatuko zenuke azalean? Non?**
▶ Euskal Herrixan independentzia eta bularrian, ondo ikusteko.
- **Komodin bat bazenu, zertarako erabiliko zenuke?**
▶ Komodiña neretzat faltsua da, ez da kabitzen nere buruan.
- **Umetan ohe azpian begiratzeko ohitura zenuen?** ▶ Ez, sekula ez.
- **Zein altzari izan nahi zenuke?** ▶ Silloie, oso komodia naz ta.
- **Sentitu izan al zara inoiz armairu enpotratua?**
▶ Bai, momentu batzutan bai.
- **Irakurtzeko liburu bat ala egunkaria?** ▶ Periodikua.
- **Zein da zure horoskopoa?** ▶ Kaprikornio.
- **Eta 1996a nolako urtea izango da zuretzat?**
▶ Nahiko politxa izango dala irakurri dot.
- **Non eraikiko zenuke ametsetako etxea?** ▶ Ondarroan, kostan.

IHAUTERIAK

Doinua: Galtzaundirena

Bi bertso osa nahian
iñauteri bueltan
zerbait pentsa lezake
horrelako festan
nola urte guztian
hau izaten ez dan
aldanikan ondoen
pasa deigun bertan.

Egun ederrak dira
broman pasatzeko
nahi genduken bezela
mozorroz jazteko
astronauta edo otso
zenbait modutako
gerta gaitezen denok
azkar festarako.

**DANIEL LEGORBURU**

B
E
R
R
E
T
S
O
T
A
M



Zur ta Lur

••• ALTZARIAK •••

Hil honetatik aurrera SUKALDEAK ere bai!

Olaso kalea 27 eta 54 A ELGOIBAR 20870 Tel./Fax: 74 42 84

**Dekorazio proiektuak
Altzarigintza integralak
Altzari modernoaren
denda berria
Eskualdeko bakarra bere
sektorean**

Garbiketa lanetarako prest


Deba Beheko Udalen eskutik eta Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak subentzionatuta, langabezia dauden pertsonen zuzenduriko 360 orduko ikastaroa burutu da Muguruza ikastetxeko lokaletan. Eraikuntza eta bulegoen garbiketari buruzko ikastaro praktikoa izan da. Sartu elkarteko teknikoek eman dituzte klaseak.

Ikastaroa amaitu eta gero, garbiketarako lanetan kualifikatutako pertsonak enpresei eskaintzea da asmoa. Sartu elkarteak “lan boltsa” bat eratzen du Udaleko Kati Pons teknikariaren hitzetan “formazioa eman diegu eta gaur egun garbiketarako makinak erabiltzeko gai dira ikastaroan aritu direnak. Bartzuk gainera, profesional askok baino ordu gehiago eman dituzte makina berezi hauekin lanean”. Kristalaren eta alfonbren garbiketa, lurren garbiketa mekanikoa, pro-

duktu kimikoen bidez lur ezberdinen garbiketa eta kristalizazioa eta beste zenbait teknika ikasi dituzte; garbitzeko produktu ezberdinak bereizten, fregatzeko eta distira ateratzeko makinak erabiltzen...

Garbiketa enpresetan lan egitea edo nor bere enpresa sortzea da ikastarokideek duten aukera. “Hartara, arlo teknikoaz gain, arlo soziolaborala ere landu dugu, aurrekontuak eta fakturak nola egin eta enpresa batean jakin behar diren hainbat gauza erakutsi diegu”.

Ikastaroa eman duen Sartu elkarteko teknikariaren ustez, “gaur egun garbiketaren sektorean nahi izanez gero, lana egon badago. Enpresetan eta etxebizitzetan garbitasuna egiten duen emakume bat edukitzeak gero eta indar gutxiago dauka. Askoz komodoagoa da kontratatzailearentzat garbiketa enpresa batekin egitea tratua, hartara buruhauste gutxiago izaten dira, ez baitu garbitzailea aseguratu eduki behar...” Praktikak egiteko aukera ere izan dute. Kultur Etxeko ganbarako eta Muguruzako ikastetxeko lurrak lijatu eta distira eman diete bai eta Jubilatuen Etxeko kristalak garbitu ere.



Lurra kristalizatzen dihardute bi ikastarokide hauek.

*GEHIENGO BERRIAREKIN
ZENTRUA DA IRABAZLE*

EMAN BOTUA

ALDERDI POPULARRA



Karkizano Palazioa

- XV. mendeko dokumentu zaharretan dorretxea deitzen zaio Karkizano (Yuso) beheko etxeari.
- “Palazio” bezala ezagutzen dena urte askotan baserria izan zen eta 1972an bota egin zuten autopista eraikitzeko.
- Karkizano dorretxea aro modernoan Elgoibarko garrantzitsuenetariko bat izan zen. Bere jabetzen artean lur eta baserriez gain, Ola eta parajeen burniolaren instalakuntzak zituen eta Karkizano etxearekin bat baita errota ere.
- Dorretxea Karkizano muinoan zegoen kokatua, Karkizano etxetik 100 metro hegoalderantz.
- Arkitekturari dagokionean, erdi arotik 1972. era makina bat aldaketa izan zituen. Poliki-poliki bertako bizilagunen premietara egokitzen joan zen. Dorretxe itxura, beraz, aspaldi galdu zuen nahiz eta hormetan aztar-na batzuk geratu. Baserri modura itxuratua, teilape zabal bat zuen Palaziok.
- Harlangaitzez eraikia zegoen baina eskantzuak eta ziur asko baita baogune guztiak ere, harlanduz eginak zeudela esan daiteke. 1972. urtean bota zenean, sarrera nagusian eta atarian arku zorrotz bana eta atzeko fatxadako ezker aldean gezi-leiho bat kontserbatzen ziren, hirurak erdi arokoak eta kararrizko harlanduz eraikiak.
- Arku zorrotzen atezangoak albo bakoitzean bina harlanduz

osaturik zeuden. Atariko arkua hiru dibelaz eraikia eta sarrera-koa bi dobela handiz, gaur egun etxe berriko lorategian jarrita dagoena, historiaren mezulari. Hauxez gain, beste bi arku bizki zorrotz ere ba omen zituen bi leihotan, nahiz eta ateratako azken argazkietan ez agertu.


- Ezenarro jaunaren ikerketak jarraituz, dorretxe honetako lehen ugazaba ezagunak Martin Ibañez Jausoro eta bere emaztea, Maria Lopez Ganboa izan omen ziren, biak ere elgoibartarrak eta familia “handiketakoak”. Hauek bere iloba zen Arriagako Martin Santxezi, Juan II.aren idazkaria eta zenbatzailea zenari saldu zizkion dorretxea bere ondasun guztiekin, burdinola, errota...

PELLO ARRIETA



Iñaki Konde

(1919-1979)



- 1919ko irailaren 14an jaio zen Ermuan.
- Urte batzuk beranduago familia Elgoibarrera etorri zen bizi izatera.
- Iñakik Gabilondo lantegian egin zuen lan. Elgoibarren ezkondu eta 2 seme izan zituen.
- Mendizale porrokatua, Morkaiko Mendizale Elkartearen sortzaileetarikoa izan zen. 14 urtez egon zen elkarte-ko presidente.
- Hogeita zortzi urterekin Euskal Herriko 100 mendiak eginak zituen.
- Athletic-a zen bere bizitzako beste pasioa. Athletic-a nora, hara joaten zen Iñaki partiduak ikustera. Atletismoa ere oso gogoko zuen. Loroño korrikalariaren “forofo” amorratua zen.
- Gorbea jatetxea ireki zuen bere emazte Faustinarekin batera 1955ean. Bihotz oneko gizona izaki, beti ematen zion otarteko bat eskean zetorrenari.
- Parrandan ibiltzea gustuko zuen. Urtero joaten zen, hutsik egin gabe, Santo Tomas egunean Bilbora eta San Sebastian egunean Donostiara.
- 1979ko urtarrilaren 19an hil zen.

IV. URTEURRENA



1992ko otsailaren 17an hil zen **JUANJO SAN MARTIN**en oroimenez **urtemeza** izango da larunbatean, hilak 17, arratsaldeko 7etan San Bartolome parrokian. Joaten zaretanoi alde zurretik mila esker.



MOTZAK

Baqueira-ra irteera

Ibai Klubak Baqueira Beret eski estaziora irteera antolatatu du martxoaren lehen astebururako. Pentsio erdia, bi egunetako erremonteak eta bidaia sartzan dira 19.100 pta.ko zenbatekoan. Ikastaroa eta eski ekipoa aukeran dira. Irteera martxoaren leku arratsaldean izango da eta itzulera 3an. Izena emateko Ibai Klubeko 74 07 93 edo 74 27 06 zenbakietara deitu.

Gimnasia erritmikoa

Larunbatean, hilak 17, gimnasia erritmikoko Gipuzkoako Txapelketaren bigarren fasea burutuko da Kiroldegian. Ibai Klubak antolatuta, Gipuzkoako 15 klub ezberdinetako 150 neskatok hartuko dute parte. Goizeko 10etatik aurrera txapelketako frogak burutuko dira eta tartean Ibai gimnasioek gimnasia erritmikoko eta aerobic-eko erakustaldia egingo dute. Elgoibarko neskatok ez dute txapelketan parte hartuko, erakustaldian bakarrik.

Gorka Sanchez Espainiako Txapelketan

Euskadiko Atletismo Federazioaren erabakiz, Mintxeta Atletismo Taldeko Gorka Sanchezek datorren martxoaren 17an Sabadellen izango den Espainiako Kros Txapelketan parte hartuko du. Azken egunotan korritu duen lasterketetan fin dabil elgoibartarra. Abadiñon izan zen eta Lasarteko krosean ere laugarren geratu zen.



Jose Antonio Ruiz:

"Markak hobetu ditzaket aurten"

■ **Gipuzkoako Atletismo Txapelketan izan zara.** - Iragan den asteburuan korritu nuen 400 metroko lasterketa. Zapatuko eliminatorian igandeko finalerako sailkatu nintzen.

■ **Espero zenuen finalean 4. geratzea?** - Egia esan, nola nabilen ikustearren joan nintzen. Hala ere, bigarren biran, kale bakarrean sartzeko bultzak egin zidaten eta atzera xamar geratu nintzen. Agian hirugarren postua eskura nezakeen. Gainera azken hiru asteetan, azterketak direla eta, ez dut entrenatu.


■ **Seniorretan korritu zenuen.** - Promesetan nago baina seniorretan korritzeko moduko marka neukan.

■ **Marka onak dituzu beraz.** - Bueno, ez dira bikainak, balekoak besterik gabe.

■ **Nola ikusten duzu zeure burua datozen urteotan?** - Oso zaila da ezer esatea. Jende oso ona dago eta haien mailan egoteko asko hobetu behar dut nire marka. 53"15 daukat pista estalian eta 52"74 aire librean. Gipuzkoa eta Euskadiko korrikalariak 48 segundo inguruan dabilza.

■ **Beste txapelketarik aurrerantzean?**

- Zapatuan Euskadiko txapelketa izango da baina ez daukat eskatzen duten marka. Orain aire libreko pistetan arituko naiz, 400 m. eta 800 m.tan. Azken honetan zer



moduz nabilen ikusi nahi dut. 800 m.tan ibiltzeko gehiago entrenatu behar da. Diotenez pistako lasterketarik gogorrena da.

■ **Beti 400 m.tan korritu izan duzu?** - Ez, kadeteetan 1.000 eta 600 m. egiten nituen. Juniorretan 800 m. eta gero, utzi egin nuen. Iaz hasi nintzen berriz, Manu Morak esan zidan Mintxetako taldean hasteko eta Deban bi urtez egon ostean Elgoibarren hasi nintzen berriz.

■ **Martin Fiz-ekin entrenatu izan duzu.** - Gasteizen nago ikasten eta batzuetan Elgoibarren ere entrenatzen dut. Han Fiz eta lagun batzuk entrenatzen ibiltzen dira eta berarekin korritzeko aprobetxatzen dut.

■ **52 segundoz azpitik ibiltzea da zure nahia.** - Bai, urte honetan nire helburua 52tik jaitea da. Posible dela uste dut iaiztik hona markak

hobetu baititut. Gogor entrenatu beharko dut.

■ **Bizikletan ere ibiltzen zara?** - Bai, lagunekin mendiko bizikletan trabesiak egiten ditugu. Konpetizioan ez naiz aritzen iaz federatuta nengoen arren.

• Adina: 20

• Korrikalari bat? Maria Mutola, Mozanbikekoa.

• Kirol etxe bat? Adidas

• Maniarik? Azken aldian galtzerdi motzak erabiltzen ditut.



CRISTALERIA ELGOIBARRESA C. B.

Bidriera artistikoak
Obra komertzialak


Urasandi 12 behea
Tel-Fax: 74 04 89

Ana Etxaniz eta Angel Quintana izan ziren podium-era igo ziren bi elgoibartarrak

Euria eta haize zakarra izan ziren joan den igandean Mintxetako pistan burutu zen Gipuzkoako txapelketarako baliagarria den eskolarteko kros txapelketako protagonistak. Banakako kategorian Ana Etxaniz alebin mailako nesketan eta Angel Quintana, infantil mailako mutiletan izan ziren saria jaso zuten elgoibartar bakarrak. Hirugarren postua lortu zuten biek. Taldeka berriz, Mintxeta Klubeko neska-mutilak lehen postuan geratu ziren hiru kategoriatan: alebin mailako nesketan eta infantil mailako neska eta mutiletan. Ikastetxeen sailkapenean San Bartolome ikastolak beste

horrenbeste lortu zuen. Infantiletan, nesketan zein mutiletan, eta alebin mailako nesketan lehenak geratu ziren Ikastolakoak.

Partaidetzari dagokionean, Elgoibarko Pilar eta Ikastolak ezezik beste herri batzuetako ikastetxeak ere aritu ziren Mintxetan, besteak beste, Tolosa, Donostia, Oñati eta Zestua.



Goiko argazkian irabazle geratu ziren klubeko sailkapenean Mintxeta Atletismo Taldeko infantil mailako neskek. Argazki txikietan Ana Etxaniz eta Angel Quintana, biek hirugarren postua lortu zuten. Azkenik, Mintxeta Taldeko infantil mailako mutilak. Klubetan lehen postua eskuratu zuten.

KiROL

EMAITZAK

Futbola

Elgoibar 0 - Anaitasuna 1 (**Kadeteak**)

Haundi 2 - Hernani 1

Elgoibar 8 - Ostadar 0 (**Neskak**)

Elgoibar 1 - Añorga 1 (**Jubenilak**)

Bergara 3 - Elgoibar 1 (**Infantilak**)

Azkuene 3 - Elgoibar 0 (**1. erreg.**)

Saskibaloia

Astigarraga 40 - Txankakua E. S.T. 46

Eskubaloia

(**Kad. neskak**)

Leizaran 9 - Pagoaga Elg. 17

(**Kad. mutilak**)

Don Bosco 25 - Elgoibar 17

(**Jubenil mutilak**)

Bidebieta 18 - Elgoibar 29

(**Seniorrak**)

Txankakua Elg. 17 - Beasain 17

Areto futbola

Elgoibar F.S. 0 - C. Urarte 1 (**2. maila**)

Futbitoa

S. Pitxote 3 - King Kong 6

Pedruskos 3 - P.S.K. 4

S. Karapola 5 - Aterpe 4

B. Duro 1 - Oraiko Disko 2

Karkis 6 - Luky Lucke 2

Orbela 4 - Uda Berri 2

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 17

12,00 Urki B - Azkuene B

(**2. jubenilak**)

15,45 Elgoibar - Dunboa (**1. erreg.**)

18,00 Beti Sutan - Vasconia (**2. erreg.**)

Igandea, 18

16,30 Elgoibar - Almen (**Infantilak**)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 17

16,00 Pagoaga Elg. - Urnieta

(**Kad. neskak**)

Saskibaloia, Kiroldegian

Larunbata, 17

19,00 Elgoibar - Lesaka

Pinturak diruditen argazkiak

Pedro Luis Ormazabal bergarraren 25 erretratu dira Kultur Etxeko erakusgelan egunotan ikus eta aprezia daitezkeenak. Euskal Herrian zehar azken urteotan ateratako argazkiak bildu ditu bergarrak; bertoko ohitura, erromeria, ihauteria, dantza etab.en islada dira. Beste irudi batzuetan pertsonaia ezagunak agertzen dira, Jorge Oteiza eta Nestor Basterretxea esaterako.

Zintzilikatutako irudietara begiratu, argazkiak baino, badirudi grabatuak edo margoak direla egileak egindako lanak. Ormazabalek erabiltzen duen teknika bereziagatik da hori. Transferantzia deitzen zaio,



Ormazabal (dantzaria besarkatzen) polaroid-etik abiatzen da.

eta EEBBetan ikasi omen zuen duela urte batzuk, argazki ikasketak burutzeraz joan zenean. Polaroid pelikula batekin hasten da prozesua. Argazkia egin ondoren eta errebelatzen ari den bitartean, artisau paper emultsionatu batera "transferritu" egiten da. Prozesu honek irudiaren tonalitateak eta definizioa

manipulatzeko aukera ematen dio argazkilariari, bakoitzak bere ikutu pertsonala emanaz.

Kilometroak 96 Elgoibarren ospatuko dela eta, San Bartolome Ikastolak Ongarri Argazki Taldearen laguntzaz antolatu duen erakusketa hila-ren 29ra arte egongo da irekita egunero arratsaldeko 6etatik 9ak arte, igandeak

izan ezik. Inaugurazio ekitaldian Ongarri elkarteko kidea eta Ikastolako presidentea den Jesus Mari Sarasuak datozen asteotan "hainbat ekitaldi" burutuko direla aurreratu zuen, "abesbatzen saioak, rock kontzertuak, hitzaldiak etab.".

BEGIRALE TITULUDUNEKIN

OHOKO 2-3-4-5. mailak

Ama, nik ere nahi dot!

Larunbataro

Izena emateko

Otsailaren 19tik-23ra
Elgoibarko Izarra K.E.
Ubitarte 4, behea
Tel. 74 16 26

Ekintzak
Jolasak
Irteerak
Eskulanak ...

Ordutegia
16,00 -19,00

Datak (10 larunbat)
Martxoak: 2-9-16-23-30
Apirilak: 20-27
Maiatzak: 4-11-18


Prezioa
2.000 pta

ANTOLATZAILEA:
 ATXUTXIAMAIIKA Begirale Taldea

LAGUNTZAILEAK:
 Elgoibarko Udala / Gipuzkoako Foru Aldundia

Sari mamitsuak banatuko dira mozorro lehiaketan

Gaur, hilak 16, Ihauterietako larunbat bezpera, larunbat gauean eta asteartean kalean ikusiko ditugun mozorro edo jantziei azken ikutuak emateko unea da. Pirata, arabiar, pailazo, pertsonaia ezagun eta ez hain ezagunen parodiak... denerako lekua uzten du imajinarioak. Heldu dira alaitasuna, umorea eta parranda giroan bizitzeko egunak: karnabalak, haratuzteak edo ihauteriak.



laz bakarka irabazi zuen mozorroa.

Urtero bezala, Udalak mozorro lehiaketa antolatu du larunbat gauerako. Gauerdian, goizaldeari hasiera ematen dion ordu misteriotsu horretan hasiko dira bai taldeka, bai banaka mozorrotutakoak desfilean. Partehartzera animatzeko arrazoirik bada emango diren sarien zenbateko ikusita. Taldekako mozo-

asteartean

Asteartean, ohiko mozorroen topaketa izango da Plazan. Segidan haurrentzako ikuskizuna, eta ondoren Mautixarekin kalejira. Lehenbiziko aldiz Atxutxiamaikako begiraleak hankaluzetan arituko dira txaranga bitartean. Iluntzeko 7,30etan suzko zezena izango da Plazan.

rrorik onenarentzat 30.000 pta.ko saria egongo da, 20.000koa bigarrenarentzat eta 10.000 pta. hirugarrenarentzat. Banakako sailean 20.000 pta. irabaziko ditu lehenak, 15.000 hurrengoak eta 10.000 hirugarrenak. Mozorroaren itxura, momentuko eszenifikazioa, inprobisazioa eta umore ona aintzat hartuko dira saria nori egokitu erabakitzeke orduan. Ekekei, Kokoe elkarteko eta Egur tailerreko kide bana izango dira epaimahaiko.

Txaranga eta dantzaldia

Lehiaketaz aparte, besterik ere ekarriko du larunbatetik. Arratsaldeko 4,30etan haurrentzako play-back saioa antolatu du Plaza Handian Atxutxiamaikako Begirale Taldeak. Euria eginez gero Herriko Antzokian izango da. Mautixta txaranga arratsaldez kalejira eskainiko du eta gaueko 11etan berriro aterako da kalez kale. Lehiaketa aurretik, gaueko 10etan Egan taldearekin dantzaldia egongo da Plaza Handian.

Gabi jatetxea

Nafarroa plaza

**Mozorrotuta datozenen artean
BI LAGUNENTZAT AFARI BAT
zozketatuko dugu!!**

Zozketa asteartean gaueko 12etan izango da.

ONDO PASA IHAUTERIAK!!

BEREZITASUNAK

- GOSARIAK - PINTXOAK
(8,30etatik aurrera)
- MENU BEREZIAK
- MENU TRADIZIONALAK


JANGELA:

Astelehenetik larunbatera **IREKITA**

Esther Fulgencio:

"Zubitik behera botatzea inpresionantea da"

Soraluzeko zubitik behera botatzeko gogoia duenak badu aukerarik. Puenting egiteko ikastaroak ematen ditu talde batek. 4.000 pta.ren truke, ikastaro txiki bat eta bi jauzi egin daitezke. Esther Fulgenciorekin egon gara. Bere lagun bat antolatzaileetarikoa bat da eta bere eskutik jakin zuen zer zen puenting-a. Behin probatu eta gustatu egin zitzaion.



Esther Fulgencio ezkerrean eta eskuinean Punting-aren bi irudi: bat botatzera doala eta zubitik zintzilik bestea.

■ Zer da puenting egitea?

- Hitzak berak esaten duen bezala, zubi batetik behera botatzea soka bati edo goma bati lotuta zaudela.

■ Zein da ezberdintasuna?

- Sokari lotuta bazaude golpea askoz fuertegoa da, lehorragoa. Gomarekin, aldiz, gehiago botatzen duzu, askoz arinagoa da.

■ Biak probatu dituzu, beraz.

- Bai, bost bat aldiz bota izan naiz.

■ Zein zubitik?

- Plaentxikotik, 100 metro inguruko altura du.

■ Ez al duzu bertigorik sentitzen?

- Inpresioa egiten du, hori bai. Zubiaren puntan zaudenean, batez ere, bota ez bota, zalantzan. Behera begiratu eta izugarritzko inpresioa egiten du.

■ Onena pentsatu gabe botatzea, ez?

- Bai, sokak lotu,

zubiaren beste aldean jarri eta behera.

■ Zer pasatzen da burutik une horretan?

- Sokak ondo lotuta egongo dira, ez? Ez, egia esan momentu horretan ez zaizu ezer pasatzen burutik. Oihu besterik ez duzu egiten. Hori bai, gero erabat erlaxatua geratzen zara.

■ Buruz behera ere bota izan al zara inoiz?

- Behin, azkenengo aldiz. Sentsazioa askoz fuertegoa da zuzenzuzenean ikusten baiti-

tuzu bai distantzia bai eta lurra ere.

■ Ziurra al da?

- Sokak ondo egotea eta korapiloak egiten jakitean oinarritzen da dena.

■ Eta edonork egin al dezake puenting?

- Bihotzean arazoren bat dutenak kontuz ibili behar dira, emozioa haundiegia izan daiteke.

■ Bestelako kirolik egiten al duzu?

- Ala delta egin nahi nuke baina...

Garajeak

Lokal bat alokatzen dut Madalan, almazenerako aproposa.
☎ 74 13 84

Garaje itxi bat ALOKATZEN dut pista beltzean.
☎ 74 20 09 (gauzez)

Garaje ITXI BAT salgai Santa Ana 46an.
☎ 58 40 24

Garaje bat ALOKATZEN dut pista beltz azpian. Marraduna eta kotxea garbitzeko aukera.
☎ 74 01 77

Garaje bat SALDU nahi dut. Marraduna. Pista beltzean. Oso merke.
☎ 45 49 29

Salerosketak

Ford Escort XR3, 16 v., SS AN kotxea saltzen dut.
☎ 74 34 63 Xabi (gauzez)

Errepideko bizikleta salgai. CONTINI markakoa. Shimano 105 STI Mavic. 100.000 pta. Oso ondo dago.
☎ 74 26 49

ERREPIDEKO BIZIKLETA salgai. Egoera oso onean eta prezio interesgarria.
☎ 74 28 56

Haurrentzako Ihauterietako jantziak salgai (Txano gorritxu, Dama antigua eta arabiarra)
☎ 74 14 69

Etxebizitzak

Etxe bat salgai MENDARON. Amueblatuta.
☎ 75 62 62 (gauzez 9-11)

Elgoibarren edo inguruan PISU BAT ALOKATU edo konpartituko nuke. Iosune.
☎ 74 41 32 (egunez)
☎ 59 21 36 (8etatik aurrera)

ALTZOLAN BUHARDILA BAT alokatzen dut. Hornituta eta baldintza onean. ☎ 74 37 41

Mendaron ETXEBIZITZA BAT SALGAI. Buztinalde plazan. Amueblatua.
☎ 77 05 90 Angel Mari

Mari Karmen Azkueri, Zorionak!! bere urtebetzean. Zure seme-alabak eta ilobak.

Zorionak Ana Etxanizi Mintxetan hirugarrena geratu zelako.

Zorionak Miren Bastida eta Aitor Gabilondori San Balentin eguna dela eta.

Zorionak Itsaso Perez Arozenari bere 8. urtebetetzean guraso eta familiaren partez.

Agurrak

Otsailaren 11an urteak bete zituen Amairi Batman zorionak. 5. mailako neska mutilen partez.




Otsailaren 19an urteak beteko dituen Eukene Gileri Super zorionak. 5. mailako adiskideen partez.

Partikularrak

Frantseseko klaseak ematen ditut. Baita itzulpenak egin ahoz eta idatziz.
☎ 74 04 59 Jacqueline
74 44 51 (gauzez)

JOSE MARI ARANZAMENDI "KATEI"

Edari Banatzailea



SANTA ANA 41. ☎ 74 10 41 - 74 11 32

16 OSTIRALA

22,15 ZINEA
"Pocahontas"

17 LARUNBATA

16,30 PLAY-BACK SAIOA
OHoko haurrentzat
✓ Plaza Handian
Antolatzailea: AtxutxiamaiKa

19,00 MAUXITXAREKIN
KALEJIRA

19,30-22,15 ZINEA
"Pocahontas"

22,00 EGAN TALDEAREKIN
DANTZALDIA
✓ Plaza Handian

23,00 MAUXITXAREKIN
KALEJIRA

24,00 MOZORRO LEHIAKETA
✓ Plaza Handian

18 IGANDEA

16,30-19,30-22,15 ZINEA
"Pocahontas"

18,00 DANTZALDIA
GELATXOREKIN
✓ Jubilatuen etxean

19 ASTELEHENA

22,15 ZINEA
"Pocahontas"

20 ASTEARTEA

16,00 MOZORROEN TOPAKETA
✓ Plaza Handian

16,00 HAURENTZAKO
DANTZALDIA
Azkona Taldearekin
✓ Plaza Handian

18,00 MAUXITXAREKIN ETA
HANKALUZEEKIN KALEJIRA

18,00 DANTZALDIA
GELATXOREKIN
✓ Jubilatuen etxean

22,00 ZINEA
"Pocahontas"

23 OSTIRALA

18,00 ODOL ATERALDIA
✓ P.M. Urruzuno 8an

22,15 ZINEA
"Two much"

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
17, larunbata:	Bidasolo	Zabaleta
18, igandea:	Bidasolo	Escala
19, astelehena:	Yudego	Yudego
20, asteartea:	Yudego	Yudego
21, asteazkena:	Yudego	Yudego
22, osteguna:	Yudego	Yudego
23, ostirala:	Ormazabal	Ormazabal

FARMAZIEN HELBIDEAK:

Zabaleta: Kalebarren 9, Soraluze
Te. 75 13 84 I

Escala: Rekalde 1, Soraluze
Tel. 75 16 38

OKINDEGIA:

18, igandea: IDARRAGA

ZineA

Pocahontas

Zuzendariak: Mike Gabriel eta
Eric Goldberg
Iraupena: 81 min.


1607. urtean, abenturazale
britaniar talde bat Mundu
Berrirantz abiatzen da. Virginia
konpainiako administratzaile
xuhurra den Ratcliffek gidatuta,
urre eta altxor preziatuen bila doaz.

Pocahontas Pohatan buruzagiaren alaba
da. Bere bizitzan erabaki garrantzitsua hartu
beharko du: Kocum-ekin ezkondu, aitak berarentzat aukeratutako
borrokalaria sutsuarekin, hala patuari kaso egin? Oihaneko lagun
en artean ernantun zuzena topatuko du Pocahontas-ek.




PROIEKTU BATERATUA

ELGOIBAR ALDERAKO HEZKUNTZA ESKAINTZA PUBLIKO KOORDINATUA (2-20 URTE)



Adin bakoitzak bere gunea, gune guztiek
proiektu bera



Zatoz, herri proiektu aberats bat osatzera

AURREMATRIKULA EPEA ZABALIK otsailaren 20ra
arte

HERRI ESKOLA (☎ 74 08 79) Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza (2-12)
MENDAROKO IKASTOLA (☎ 75 61 41) Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza